



ALFONTSO VIDAL

Santuenea

Sagardo berria prestatzen

Udazkenean gaude eta jadanik hotza eta euria agertu dira. Egia esan, beroa ere izan dugu eta ezin gara kexatu. Hala ere, udazkena ehizaren garaia izaten da. Larunbatetan eta igandeetan eskopeten “tiroekin” esnatzen gara. Goizean goiz, lehen orduetan abiatzen dira ehiztariak Andatzara uso “preziatuaren” bila. Batzuk bere sariarekin jaitsiko dira baina gehienak ezer gabe bueltatuko dira etxera. Beno, ezer gabe ez, beren hamaiketako ardoarekin inork ez die kenduko eta gainera mendian. Ba al dago gehiago eskatzerik?

Bestalde, esan behar da Santueneako sagardotegia hasi dela pixkanaka-pixkanaka denboraldi berria prestatzen. Oraindik asko falta da atek irekitzeko baina jadanik prestaketa-lanak martxan dira. Espero dugu aurten go sagardoa lehengo urtekoaren modukoa izatea, hala oraindik hobea.



Hala ere, sagardo berria probatzeko aitzakia-rekin pasako gara handik eta, bide batez, afari ederra egiteko aprobeixatuko dugu.

Beno, besterik gabe, ondo izan eta hurrengora arte!

Hego-haizea eta usoak



JOSEBA ZUBELDIA

Urdaiaga

Udazkenean sartuta gaudela adierazten duten ezaugarriak ikus ahal izan dira azken egunetan: hego-haizea, zuhaitzetatik eroritako hosto ximelduak lurrian bueltaka, usoak pasatzen... Izan ere, azkenaldiko eguraldiak, hego-haize epelak, erreztu egin du aurten go usoen pasatzea. Beraz, ehiztariak nahikoa gozatzaren ari direla esan behar, uso dexente pasa baita gure inguruetan. Auzo honetara inguratzen den ehiztari kopurua handi xamarra izaten da, beraz entzuten den tiro hotsa ere bai. Goizetan ez da iratzargailurik behar izaten, goizean goiz hasten baitira tiro hotsak. Behin eguerdia iristean gehienak etxera bueltan, batzuk bazkaria irabazita eta besteak hurrengo eguna hobea izango den itxaropenarekin.

Beste gai bati helduz, esan behar, baserritarrak eta sagardozaleak hor ikusi ditugula hilabete honetan sagastietako sagarrak bildu eta sagardoa egiten. Sagar dexente bildu dute eta beraz ez da sagardo faltarik izango. Ea zer moduzko sagardoak ateratzen diren bada aurten.



Azkenik, auzo honetara datorren bide bazterrak garbitzen ere ikusi ditugu. Mesede ederra egiten dio bide bazterriari, baina hala ere Santuenetik gora igotzean, kurba handia igaro bezain laister, sasi pila dago bide bazterrean eta honek errepidearen jarraipenaren ikusmena eragozten du. Horregaitik askotan ez da ikusten autorik datorren edo ez. Beraz sasi pila hau kentzeak kalterik ez.

Guzti hau esanda, adio esatea besterik ez. Hurrengorarte!